

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Borondatezko epean kobratzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2025eko zerga

Javier Gallego Rodríguezek, Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak,

Jakinarazten du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko ordainagiriak ordaintzeko moduan daudela.

Borondatezko epea: 2025eko apirilaren 30etik ekainaren 30era.

Borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekararekin kobratuko dira, bat etorritik Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Nola banku helbideratzeen altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Erriberagoitiko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2025eko apirilaren 30a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ